

VIII Premio de Investigación Victimológica "Antonio Beristain" (2018)

La Cátedra "Antonio Beristain", del Instituto Vasco de Criminología/Kriminologiaren Euskal Institutua (IVAC-KREI), y el Departamento de Educación del Gobierno Vasco, con el fin de promover e impulsar la investigación realizada en el ámbito de la Victimología convoca el VIII Premio de Investigación Victimológica "Antonio Beristain".

BASES

El VIII Premio de Investigación Victimológica Antonio Beristain está destinado a reconocer al mejor trabajo científico que contribuya a comprender y mejorar los conocimientos relacionados con esta disciplina, a la vez que trata de honrar la labor del Prof. Dr. Dr. *h.c.* Antonio Beristain, Catedrático de Derecho Penal y Fundador del Instituto Vasco de Criminología, por su contribución excepcional a la Victimología.

Podrán acceder al Premio:

1. Los trabajos presentados por investigadores menores de 35 años que deseen desarrollar su actividad investigadora en el campo de la ciencia victimológica, con especial atención a las víctimas del terrorismo, o
2. Trabajos Fin de Máster o de Grado en el campo de la Ciencia Victimológica, con especial atención a las víctimas del terrorismo que hayan obtenido, al menos, la calificación de sobresaliente y sin límite de edad.

1.- CARACTERISTICAS DE LOS TRABAJOS Y OTROS REQUISITOS PARA SU PRESENTACION

- Los trabajos podrán ser presentados en castellano, euskera, inglés o francés, y tendrán una extensión de 30 a 50 hojas en *Times New Roman 12*, interlineado de 1'5. Los trabajos de fin de Máster, Grado, Posgrado o Títulos propios se presentarán en su versión original y se aportará certificación de la calificación obtenida.
- Serán enviados 6 ejemplares del trabajo por correo certificado a la sede del IVAC-KREI, Centro Carlos Santamaría, Plaza Elhuyar, 2 20018 Donostia-San Sebastián, además de una copia por correo electrónico a la secretaria del IVAC-KREI: ivac-krei@ehu.eus.
- Los trabajos no deberán firmarse ni debe constar el nombre del autor/a de forma que se asegure que no pueda identificarse. Todo trabajo irá acompañado de un sobre aparte donde figure el nombre y apellidos del autor/a y que contendrá las siguientes menciones:

- Identificación (nombre y apellidos del autor/a.
 - Profesión o vínculo que le otorga al candidato la base para ser participante.
 - Domicilio y copia por ambas caras del Documento Nacional de Identidad, pasaporte o cualquier otro documento oficial identificativo.
 - Manifestación expresa del carácter original e inédito del trabajo que presenta.
 - Manifestación expresa de la titularidad del autor sobre todos los derechos de la obra y que la misma se encuentra libre de cargas o limitaciones a los derechos de explotación.
 - Manifestación expresa de aceptación del fallo del Jurado, renunciando a cualquier acción judicial o extrajudicial contra el veredicto del jurado.
 - Manifestación expresa de la aceptación por el autor de todas y cada una de las bases del Premio de Investigación Victimológica "Antonio Beristain".
- El IVAC-KREI se reserva el derecho de publicar el trabajo premiado para lo cual su autor facilitará un ejemplar del mismo en soporte informático, pudiéndose declarar el premio desierto.

2.- PLAZO DE PRESENTACIÓN

Únicamente participarán en la actual convocatoria los trabajos que se reciban antes del **15 de octubre de 2018**.

3.- JURADO

El jurado estará formado por un total de 5 miembros: 2 miembros designados por el Consejo de Dirección del IVAC-KREI, de los cuales 1 será miembro de Honor del IVAC-KREI, 2 personas designadas por la Cátedra A. Beristain y una persona designada, por el Departamento de Educación, del Gobierno Vasco. Si por proximidad, por haber dirigido el trabajo, corresponsabilizarse del mismo de alguna manera o por haber realizado alguna colaboración, algún miembro del jurado tuviera relación con un participante, deberá abstenerse de participar como miembro del Jurado en la evaluación de todos los trabajos.

4.- DOTACIÓN DEL PREMIO

El VIII Premio de Investigación Victimológica Antonio Beristain está dotado por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco con 2.400 euros. En caso de obtener la misma puntuación dos o más trabajos, el Jurado podrá conceder más de un premio con el límite de dicha dotación. Igualmente

podrá conceder accésits o realizar menciones especiales si así lo considera adecuado.

5.- ENTREGA DEL PREMIO

La entrega del premio tendrá lugar en el acto de inauguración del Curso Académico del IVAC-KREI.

San Sebastián-Donostia a 26 de febrero de 2018

VIII. Antonio Beristain Ikerketa Biktimologikoko Saria (2018)

Instituto Vasco de Criminología / Kriminologiaren Euskal Institutuaren (IVAC-KREI) "Antonio Beristain" Katedrak eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, biktimologiaren arloko ikerketa sustatze aldera, VIII. Antonio Beristain Ikerketa Biktimologikoko Saria deitu dute.

OINARRIAK

VIII. Antonio Beristain Ikerketa Biktimologikoko Sariak diziplina honen inguruko ezagutzak ulertzen eta hobetzen laguntzen duen ikerlan onena saritu nahi du, baita Zigor Zuzenbideko Katedradun eta Kriminologiaren Euskal Institutuaren sortzaile eta h.c. Antonio Beristain dok. irakasle doktorearen lana ohoratu ere, biktimologiaren alde egindako aparteko lanagatik.

Ondorengoek parte hartu ahal izango dute Sarian:

- 1. Euren ikerketa jarduera zientzia biktimologikoaren arloan (bereziki, terrorismoaren biktimen arloan) gauzatu nahi duten 35 urtetik beherako ikertzaileek egindako lanek; edo**
- 2. Zientzia biktimologikoaren arloan (bereziki, terrorismoaren biktimen arloan) egin diren eta gutxienez bikain lortu duten master edo gradu amaierako lanek (adin mugarik gabe).**

1.- LANEN EZAUGARRIAK ETA AURKEZTEKO BESTE BALDINTZA BATZUK

- Lanak gaztelaniaz, euskaraz, ingelesez edo frantsesez egon daitezke eta 30 eta 50 orrialde artekoak izango dira, 12 tamainako *Times New Roman* tipografiarekin eta 1,5eko lerroartearekin. Master, Gradu, Graduondo edo Titulu amaierako lanen jatorrizko bertsioa aurkeztuko da, baita lortutako kalifikazioaren ziurtagiria ere.**
- Lanaren 6 ale bidaliko dira, posta ziurtatu bidez, IVAC-KREIren egoitzara (Carlos Santamaría Zentroa, Elhuyar plaza 2, 20018 Donostia), baita beste kopia bat ere, helbide elektroniko bidez, IVAC-KREIko idazkaritzara (ivac-krei@ehu.eus).**
- Lanak ez dira sinatuko eta ez da egilearen izena jarriko, ez identifikatzeko moduan. Lanekin batera gutun azal bat egongo da eta, bertan, egilearen izen-abizenak, ondorengo datuekin batera:**
 - Egilearen identifikazioa (izen-abizenak).**
 - Sarian parte hartu ahal izateko lanbidea edo lotura.**

- Helbidea eta nortasun agiri nazionalaren, pasaportearen edo beste edozein identifikazio agiri ofizialen kopia. NAREN kasuan, bi aldeen kopia egingo da.
 - Lana jatorrizkoa eta argitaragabea dela jasotzen duen berariazko adierazpena.
 - Egilea lanaren eskubide guztien titularra dela eta ustiapen eskubideekiko karga edo mugarik ez duela jasotzen duen berariazko adierazpena.
 - Epaimahaiaren erabakia onartuko duela eta erabaki horren aurka ekintza judizialik edo estrajudizialik martxan jarriko ez duela jasotzen duen berariazko adierazpena.
 - Egileak Antonio Beristain Ikerketa Biktimologikoko Sariaren oinarri guzti-guztiak onartzen dituela jasotzen duen berariazko adierazpena.
- IVAC-KREIk saritutako lana argitaratzeko eskubidea izango du eta, horretarako, egileak lanaren kopia bat bidaliko dio euskarri informatikoan. Nolanahi ere, saria eman gabe gelditu ahal izango da.

2.- AURKEZTEKO EPEA

Deialdi honetan **2018eko urriaren 15a** baino lehen jasotzen diren lanek bakarrik parte hartu ahal izango dute.

3.- EPAIMAHAIA

Epaimahaia 5 kidek osatuko dute: IVAC-KREIko Zuzendaritza Kontseiluak hautatutako 2 kidek (horietatik 1 IVAC-KREIko ohorezko kidea izango da), A. Beristain Katedrak hautatutako 2 pertsonak eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak hautatutako pertsona batek. Gertutasunagatik, lana zuzendu izanagatik, nolabait lanaren erantzule izateagatik edo lankidetzan aritu izateagatik, Epaimahaiko kideren batek parte hartzailearen batekin harremana badu, ezin izango du Epaimahaiko kide izan.

4.- SARIAREN DIRU KOPURUA

VIII. Antonio Beristain Ikerketa Biktimologikoko Sarirako 2.400 euro esleitu ditu Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak. Bi lanek edo gehiagok puntuazio bera lortuz gero, Epaimahaia sari bat baino gehiago eman ahalko du, diru kopurua agortu arte. Halaber, accesitak edo aipamen bereziak proposatu ahal izango ditu, egokitzen jotzen badu.

5.- SARIA EMATEA

Saria IVAC-KREIren ikasturte hasierako ekitaldian emango da.

Donostian, 2018ko otsailaren 26an